

MVTILOAKO UDALA



2022KO URRIAREN SEKO OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeita biko urriaren bostean.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.

Aitor de Astobiza Uriarte.

Miren Arantza Oiarbide Perez.

Iñaki Zabalo Echezarreta

EZ BERTARATUTAKOAK:

Jule Aramburu Mariezkurrena.

Erkuden Aguirre Arruabarrena.

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko 18:00etan

HAMAIERA ORDUA: Arratsaldeko 19:00etan.


Udal Osoko Bilkura hasi aurretik, idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi du gai zerrendako puntuak dagozkien Informazio Batzordeetan diktaminatuta daudela.

GAI ZERRENDA

- **Azken bilkuretako akten onarpena hala badagokio: 2022ko uztailaren 20ko Ohiko Bilkurako akta eta 2022ko irailaren 7ko Ezohiko Bilkurako akta.**

Aipaturiko bi akta aurkezten dira Bilkura honetan onartzeko. Bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratu dira.

- **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**



MUTILOAKO UDALA



Udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zaie:

- Alkatetzaren ebazpenak:
 - 2022ko 21 zenbakitik 32 zenbakira.

Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira.

- **Mutiloako Ostatu-Pentsio etxebizitzaren zerbitzu publikoaren ustiakuntzarako lizitazioa amaitu ondoren, zerbitzu publiko kontratuaren behin-betiko esleipena onartzea.**

IKUSIRIK:

2022ko maiatzaren 11n egin zen Udal Osoko Bilkuran "MUTILOAKO HERRI OSTATUAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN USTIAKUNTZA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA" onartu zen.

Plegua onartu ondoren, izena emateko epea ireki zen eta deialdia Kontratazio Profila Plataforman argitaratu eta aldi berean 2022ko ekainaren 1eko Hitza aldizkarian eta 2022ko maiatzaren 31ko Berria aldizkarian.


Eskaintzak aurkezteko epea 2022ko ekainaren 13an amaitu zen, eta epe barruan ez zen lizitatzailerik aurkeztu, beraz hori dena kontuan hartuta lizitazio hau "Hutsik" geratu zen, hori dena azaroaren 8ko 9/2017 Sektorre Publikoko Kontratuen Legeko 168. Artikuluan aurreikusten den ondorioetarako.

Ondoren, 2022-09-07ko Ez-Ohiko Udal Osoko bilkura Agiri berria onartu zen, eta publizitate gabeko negoziatu prozedura erabili da eta honako 3 gonbidapen egin dira:

- Iñaki Telleria Salazar (Mutiloako Ostatura): Gonbidapena jaso ondoren ez dagoela interesatuta adierazi du.



MUTILOAKO UDALA



- Aiert Izagirre Telleria (Zeraingo Ostaturia): Gonbidapena jaso ondoren ez dagoela interesatuta adierazi du.
- Joseba Baez Auzmendi: Gonbidapena jaso ondoren, 2022ko irailaren 19an aurkeztu ditu A eta B kartazalak.

KONTUAN HARTUTA:

2022ko irailaren 20an eginiko ekitaldian eta lizitatzailer bakarria zegoenez, A) eta B) kartazalak ireki zirela, eta dena ondo zegoela konprobatu ondoren, esleipen proposamena egin zela, eta proposamen hori Joseba Baez Auzmendi jaunari jakinarazi ondoren, honek 10.3 Artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu zuela.

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:


BAKARRA:

“MUTILOAKO HERRI OSTATUAREN ZERBITZU PUBLIKOAREN USTIAKUNTZARAKO” lizitazioa Joseba Baez Auzmendi jaunari esleitzea, administrazio kontratua formalizatzeko errekerimendua eginez, horretarako alkate jauna den Iñaki Ugalde Alustiza jaunari kontratua sinatzeko ahalmena emanaz.

- **3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.**

Ondoren adierazitako faktura hauek aho-batez onartu dira:

1	Horbel kooperatiba elkarte	4.413,62 euro (BEZ barne)
2	Estaduko Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministeritza (Errotatzoko diru	4.638,72 euro



MUTILOAKO UDALA



	laguntzaren itzultzeko)	likidazioa	zati	bat	
--	----------------------------	------------	------	-----	--

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 19:00ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.